

**BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA,
HONETARAKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUENA:**

**ZINE-SISTEMA DIGITALA EMATEKO MATERIALAREN HONIKETA ETA INSTALAKUNTZA
KONTRATATZEA**

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da zine sistema digitala emateko materialaren horniketa eta instalazioa Seminarixo aretoan egitea eta martxan jartzea, plegu honetan agertzen diren baldintza eta espezifikazioen arabera.

Ekipamendu tekniko-eszenikoa I. eranskinean zerrendatu da.

CPV: 38652000-0

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena kontratua sinatzen denean hasi eta behin betiko fidantza itzultzen den artekoa izango da.

Zinea emateko materialaren horniketa eta instalazioa Seminarixo aretoan egin eta martxan jartzeko epea 60 egun naturalekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioa da 87.859,99 euro (% 21eko BEZ kanpo).

Gehieneko lizitazio-prezioaren eta eskainitako prezio unitarioen barne gastu guzti-guztiak daude sartuta, hau da, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, eta besteak beste honako hauek:

- Litzitazio-xede den zine-sistema digitala emateko materialaren horniketa eta instalakuntza kontratatzea, eta horren osagarri guzti-guztiak hornitu, instalatu, martxan jarri eta egiaztatzea.
- Garraio-gastuak, **Seminarixoko** instalazioetarainokoak, eta baita lizitazio-xede den ekipamendu tekniko-eszenikoa instalatzeko beharrezkoak diren tresna eta baliabide osagarri guztiak ere.
- Hornitutako ekipamendu guztien erabilera-eskuliburuak eta katalogoak entregatzea (ingelesez eta gaztelaniaz), eta baita mantentze-laneko eskuliburuak ere, egin beharreko jarduketak eta horien maiztasuna adierazita.
- Egindako lanen ondoren, instalazioak garbitzea eta lanen ondorioz gelditutako soberako materiala erretiratzea.

- Instalazioa bukatu ondoren, ekipamendua erabiliko dituzten langile teknikariei ikastaroa ematea, ekipamendua dituen gaitasunak erakusteko eta horien erabileran trebatzeko.
- Berme-aldian zehar, gutxienez bi ikuskapen-bisita urtero, sistema guztiak berrikusteko eta puntuaren jartzeko; horien datak jabegoak zehaztuko ditu. Ikuskapen honetan sartuta daude, ekipamenduko elementu garrantzitsu guztiak ikuskatzeaz gain, horien barneko garbiketa, filtroak.

Bermearen barruan espresuki sartuko da sistemak eguneratuta mantentzeko konpromisoa, software eta firmware mailan; eta horretarako, ahalik eta azkarren instalatuko dira ekipo-egileek sortutako eguneraketak.

- Jabegoaren eskura, urteko egun guztieta, 8:00etatik 22:00ak arte, telefonozko arreta jartzea; eta beharrezkoa balitz, gertakizuna izan eta 2 ordu baino lehen bertan agertzea langile adituekin.
- Hiru inaugurazio-ekitalditan laguntza teknikoa ematea, Bergarako Udalarekin adostutako egunetan, eta bertan instalatutako ekipamendua nola dabilen jendaurrean erakustea.

Horrenbestez, eskainitako guztizko prezioak nahiz prezio unitarioek beraien barne gastu guzti-guztiak sartuta izango dituzte, hau da, ekipamendua diseinatu, hornitu eta instalatzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren guztiak; horregatik, gerora ez da onartuko beste kontzeptu batzuen fakturaziorik baldin eta azken prezioan sartu beharrekoa bazein baina aurretik sartu gabe gelditu bazein.

Adjudikazio-hartzaleek eskainitako guztizko prezioaren eta prezio unitarioen barruan, honako kopuru hauek ere egongo dira: era guztiako zergak (BEZa izan ezik), tasak eta gastuak, eta horien barne gastu orokorrak, finantzarioak, asegurukoak, tasak, fidantzak, eskura ematea, garraioa eta joan-etorriak, langile-gastuak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko soldatak, ordezkapenak –baja edo gaixotasunagatik–, norbanako istripu-aseguruak, etab.), etab.

Lizitazio-hartzaleek aparte zehaztu beharko dute, partida independente batean, zenbateko BEZa ordaindu beharko duen Bergarako Udalak.

4. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratuaren balio estimatua da 87.859,99 euro (BEZaren % 21a kanpo).

5. FINANTZAZIOA

Bergarako Udalak diru-izendapen bat ezarri du honako partida honetan: 0310.622.334.20.01 2018

6. ORDAINTZEKO ERA

Prezioa ordaintzeko lan denak amaitu ondoren faktura aurkeztu beharko du.

Faktura ordainduko da Sektore Publikoko Kontratuuen Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeetan.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berraztertuko.

8. BERMEAK

Ez da behin-behineko bermerik ezarriko.

Behin betiko fidantza BEZik gabeko adjudikazio-prezioaren % 5aren parekoa izango da eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 108. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabilita ezarri ahal izango da.

Berme-epea amaitzen denean, adjudikazio-hartzaileari bermea itzuliko zaio, osorik edo –bidezkoa bada– zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beteta baditu. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

II- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau adjudikatzeko prozedura irekia erabiliko da eta hori erabakitzeko honako irizpideak eta gehieneko puntuazioak erabiliko dira:

Irizpide automatikoak

- | | |
|------------------------|-----------------|
| - Eskaintza ekonomikoa | 55 puntu |
|------------------------|-----------------|

Eskaintza ekonomikoari kontratu-xede diren unitateen prezioaren xehetasuna banakatuta erantsiko da.

Puntuazioa emateko honako formula hau erabiliko da:

$$P = \underline{55} \times \underline{Em}$$

Eb

P=Lortu dituen puntuak

Eb=Baloratu beharreko eskaintza

Em=eskaintzarik merkeena

- | | |
|-----------|----------------|
| - Bermeak | 5 puntu |
|-----------|----------------|

Pleguan ezarritako 2 urteez gain eskainitako urte bakoitzeko, 1 puntu.

Balio-irizpenaren menpeko irizpideak

- | | |
|--------------------------|-----------------|
| - Ekipamenduen kalitatea | 35 puntu |
|--------------------------|-----------------|
- Proiektorea/zerbitzaria.... 15 p.
 - Pantaila 5 p.
 - Kutxa isilgarria..... 5 p.
 - Audio kuxak..... 4 p.
 - Audio prozesadorea 4 p.
 - Lagungarriak 2 p.

- Hobekuntzak

5 puntu

Ordezko lanpara proiektoarentzat, eta pleguan aurreikusi gabeko beste batzuk, baina betiere Bergarako Udalarentzat kostu gehigaririk izan gabe.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratacio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuren bat ez badute. Kaudimena egiazatzeko eta ebaluatzeko bideak 11. eta 12. baldintzetan ezarritakoak izango dira.

Halaber, nork bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lizitatzaillek helburu izan behar dute kontratu honen helburuarekin zuzeneko lotura duten ekintzak egitea, eta kontratua behar bezala betetzeko nahiko elementu pertsonal eta material daukan antolaketa talde bat eduki behar dute.

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorean aurkeztuko dira 15 egun naturaleko epean deialdia udaleko web orriko kontratacio profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita, astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jai suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.

Kontratacio honi dagokion espedientea aztertu ahal izango da udal honetako Kultura Zerbitzuan goizeko 09:00etatik 13:00ak arte (astelehenetik ostiralera) proposamenak aurkezteko epealdian zehar.

Administrazio Publikoen Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, korreoz ere aurkeztu ahal izango dira proposamenak, eta aurreko lerraldian jasotako epea amaitu baino lehen jakinarazi egin beharko da faxez (943 77 91 63 zenbakira) eskaintza bidali dela. Edozein kasutan ere, ez da inolako proposamenik onartuko epea bukatu eta hamar egun pasatu ondoren.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzaillek plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzaillek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik, baina bai aurkeztu ditzakete bidezkotzat jotako hobekuntzak.

Proposamenak gutunazal itxi batean aurkeztuko dituzte ondorengo idazpen honekin: “**ZINEA EMATEKO MATERIALAREN HORNIKETA ETA INSTALAZIOA SEMINARIO ARETOAN EGITEA ETA MARTXAN JARTZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA**”. Kartazal horren barruan A, B eta C kartazalak sartuko dira.

"A" gutun-azalean, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

- a) Europako Kontratacio Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektroniko honetan eskura daiteke: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>.

Halaber, udalaren Kontratzailearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitatzaillek DEUC betetzeko importatu ahal izateko.

- b) Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrik, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.
- c) Atzerriko enpresen deklarazioa. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Spainiako arlo guztiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztiarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.
- d) Posta elektronikoko helbide bat errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko.
- e) Azken bost urteetan egindako horniketa nagusienen zerrenda aurkeztu beharko da; zerrenda horretan jaso egin beharko dira lan horien zenbatekoa, datak eta zein izan zen jasotzailea –publikoa zein pribatua–, eta baita horien ziurtagiriak ere –ziurtagiri horiek Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 78 a) artikuluan ezarritako ezaugarriak izan beharko dituzte–.

Horren ildotik, horniketa honek dituen ezaugarri bereziak kontuan izanda, enpresa aurkezleak egiazta egin beharko du –bai aurrez egindako horniketen ziurtagirien bidez, bai bezero izandako adostasun-aitorpenen bidez– azken bost urteetan eginda dituela horniketa honen moduko gutxienez beste bi horniketa prezio berdinekoak edo gehiagokoak.

Hori egiaztatzen ez bada, gaitasun teknikoa ez dela egiazta ulertuko da, eta lizitaziotik kanpo geratuko da.

Egiaztapenetan, jasota egon beharko dira sustatzailearen izena, helbidea eta telefonoa, eta baita gauzatutako aurrekontua ere.

Kontratacio Mahaiak edozein unetan justifikazio dokumentala eskatu ahal izango die lizitatzaillei, beren erantzukizunpean baldintzak betetzen dituztela adierazi dutena egiazatzeko.

Lizitatzailak gehienez ere hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen denetik kontatzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailak eskaintza erretiratu egin duela, eta prozeduratik kanporatua izango da.

"B" gutun-azalean, "Balio-irizpenaren menpeko irizpideak" izenburuean kalitatea eta hobekuntzak baloratzeko informazio zehatza sartuko da, baldintzen pleguko 9 puntuari jarraituz.

Inoiz ez da sartuko gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa. Hori suertatuz gero, lizitatzalea prozeduratik kanpo geldituko da, eta ez da irekiko horren "C" gutun-azala.

"C" gutun-azalean, "PROPOSAMEN EKONOMIKOA" izenburuean, proposamen ekonomikoa sartuko da, betiere plegu honen amaieran jasotako Proposamen Ereduari jarraituz (II. Eranskina). Erantsiko zaio aurrekontu desglosatura kontratu-xede diren unitateen prezioaren xehetasunak banakatuta.

Ez da onartuko ereduari jarraitu gabe idatzitako inongo proposamenik.

Ez da sartuko kartazal honetan "B" kartazalean sartu beharreko dokumentazioa. Dokumentu horietatik edozein sartuz gero "C" kartazalean, ez dira baloratuko agiri honek.

Lizitatzale bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

12. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako hauek egingo dira:

1. "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratacio Mahaiak A gutun-azala irekiko du, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko du; bestela, konpontzeko izapidea egingo du.

Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemendako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein diren aukeraketa-irizpideei egokitzen zaizkien empresak, eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

2. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean egingo da B gutun-azala irekitzeko jendaurreko egintza, betiere lizitatzaileren batek bere proposamena posta bidez igori ez badu behintzat, zeren orduan gutun-azalak Administrazio Publikoen Kontratazioari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. artikuluak aipatzen duen epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean irekiko baitira.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzalearen profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Egintza horretan, berariazko adierazpenea egingo da mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz, eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta, kasu horretan, baztertzeko arrazoia azalduko dira.

Lizitazioaren prozeduratik kanpo geratuko dira C gutun-azalean sartu beharreko dokumentazioa B gutun-azalean sartzen dutenak.

3. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azala ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren, "C" gutun-azala irekiko da jendearen aurrean, Kontratatzalearen Profilean (www.bergara.eus) adierazitako egun eta orduan.

"C" gutun-azala ireki baino lehen, eskaintza bakoitzean balio-irizpide baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

4. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak garrantziaren arabera (handienekotik txikienelekora) sailkatuko ditu Mahaiak, eta kontratua esleitzeko proposamena bideratuko dio esleipena egingo duen kontratacio-organora.

5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA

Lehenagoko ekintzak egin eta gero, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaleari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala hamar laneguneko epean –errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita–:

- Lizitatzalearen edo ordezkariren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordetza.
- Lizitatzalea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskribapena aplikaziozkoa zaison merkataritza legeriarekin bat etorriz eskatu ahal denean. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzalearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Aurreko a) eta b) letratan adierazitako baldintzak egiazatzeko, aurkeztu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Espainiako Lizitatzale eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria. Ziurtagiri horri gehitu beharko zaio lizitatzalearen erantzukizunpeko aitorpena, non adieraziko den ziurtagiri horretan adierazten diren inguruabarrik ez direla aldatu.

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiazatzeko dokumentuak. Kaudimen hori egiazatzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 87. artikuluan jasotako edozein bide erabili ahal izango da.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztagiria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikuluan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.
- Zerga-betebeharak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea, edo kontratacio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzenean lortzeko baimena ematea.

- f) Behin betiko bermea eratu dela justifikatzeko dokumentazioa.
- g) Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen agiriak.
- h) Erantzukizun zibileko poliza bat (gutxienez 300.000 euroko kapitalarekin) kontratatu izanaren egiaztagiria eta, horrekin batera, asegurua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa agertu beharko da, kontratua gauzatzen den bitartean estaldurari eutsi egingo zaiola bermatzeko, baldintza teknikoen pleguan aipatutakoari jarraituz.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuen bete ezean, lizitatzailaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta hurrengo lizitatzailaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

13.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA:

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetzen duena.

BOKALAK:

- Udaleko Kultura eta Euskara batzordeburua, edo hark eskuordetzen duena.
- Kontuhartzaila, edo hark eskuordetzen duena.
- Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetzen duena.

IDAZKARIA

- Udalbatzakoa, edo hark eskuordetzen duena.

Mahaiaren bileretan parte hartu ahal izango dute Udalean erantzukizun teknikoa duten pertsonek, Mahaiak aholkularitza emateko hala eskatzen duenean. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

14.- ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA

Adjudikazioa lizitatzailaileak dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 5 egun baliodunetan gauzatuko da, betiere lizitatzailaileak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.

Adjudikazioa gehienez bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta bihamarunetik kontatzen hasita. Epe hori luzatu egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 158. artikuluan aurreikusitakoaren babespean, balio anormalak edo neurri gainekoak dituzten eskaintzak antzematen diren kasuetan.

Eskaintza anormaltzat edo neurri gainekoak jotzen denean, eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio, eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu horretan, lizitatzailaileak emandako arrazoia eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailaileari egingo dio adjudikazioa, baldin eta Administrazioaren esanetan lanak egoki egiteko gaitasuna badu; bestela, anormaltzat edo neurri gainekoak jotzen ez den proposamenaren alde egingo da adjudikazioa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 152. artikuluaren arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzailailei eragindako

gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitzaileei entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua hobetuko da administrazio agirian sinatuta, adjudikazioaren jakinarazpenean adierazitako epean.

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordinak ordainduko beharko ditu.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

15. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoen pleguek diotenari, eta, edozein kasutan ere, Udalaren ordezkariek, kontratistari, agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratistak izango du egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna; eta baita kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek edo ateratzen dituen konklusio okerrek Administrazioarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioen erantzukizuna ere. Kontratistak berari egotz dakizkioken ekintzengatik hirugarrenetan egiten zaizkien kalteen kalte-ordinak ordainduko ditu.

Kontratistak bete egin beharko ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko une bakoitzean indarrean dauden arau guztiak.

Kontratista derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzena; berandutzak ez du eskatzen Udalak aurretik ohartarazi beharrik.

Kontratista, prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, empresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebehar hauek hartuko ditu bere gain: ordainsaria negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizenziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordinaketa barne–; eta baita enplegatuaren eta enplegatzialearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du –bere plantillan integratua– eta, beste batzuen artean, obligazio hauek izango ditu:

A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztielarako, kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.

B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean, kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.

C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio; bereziki, hieiek zeuzkaten lan-bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Enpresa kontratisten langileek edo, kudeaketa-mandatu baten ondoren, bere zerbitzuak udaleko lantokietan edo haren erakunde publikoetan eskaintzen dituenek ezingo dute zerbitzu hauetarako sarbiderik izan:

- a) Prestakuntza-ikastaroak; lan-arriskuen prebentzio-alorrean derrigorrez bete beharrekoak izan ezik.
- b) Erakundearen posta elektronikoa. Posta elektronikoko konturen bat izendatu behar bazaie, posta elektronikoaren helbidean garbi utzi behar da kanpoko pertsonala dela.
- c) Enplegatu publikoak sartzeko kontrol-txartelak. Hala bada kasua, sartzeko baimen berezi bat emango zaie. Instalazioetara sartzeko kontrolak inondik inora ere ez du esan nahi kontratistaren ordutegiaren kontrola egiten denik.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratistaren arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Kontratua Udalaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burtu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

16. KONTRATISTAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloetan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu. Eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Era berean, behartuta dago honako hauek ere betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua –Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuena–; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako–; azaroaren 8ko 31/1995 Legea –Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa– eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua –urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa–; eta era berean, kontratua gauzatzen den bitartean promulgatuko daitezkeen araudiak.

17. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduraduna kultura teknikaria izango da.

18. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratistak zein azpikontratistek kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauetan bete beharko dituzte:

Indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak betetzea.

Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

19.- BAIMEN, LIZENTZIA ETA AUTORIZAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK

Kontratistak zerbitzua hasi eta gauzatzeko beharrezkoak diren eta ezein erakunde publiko zein pribaturen arauetan xedatuta dauden baimen, lizentzia eta autorizazioak kudeatzeko betebeharra izango du, eta Administrazioari horretarako behar dituen dokumentuak eskatuko dizkio.

20- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratistak, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen arloan segurtasunaren eta osasunaren erantzulea den heinean, arau juridiko eta tekniko aplikagarriak beteko ditu.

Bergarako Udalak eskubidea izango du kontratua indarrean dagoen bitartean prebentzioaren arloan egokitzat jotzen duen dokumentazioa eskatzea.

21. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura izango da zerbitzua burutzearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

22. KONTRATUA ALDATZEA

Baldintza-orrieta aurreikusi ez diren aldaketak bakarrik egin ahal izango dira baldin eta 205. artikuluan aipatutako inguruabarren bat gertatzen dela behar bezala justifikatzen bada.

23. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)

Kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrok hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikazio-hartzaleak baldin eta betetzen badira Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 214. artikuluan zehaztutako kasuak eta baldintzak.

24. HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez ere 30 eguneko epean, lanaren harrera-egintza formal eta positiboa egingo da; zerbitzuko teknikari arduradunak egingo du. Ordutik 24 hilabeteko berme-epea ezarriko da, azken onarpena emateko; dena den, epe hori hobetu ahal izango dute lizitatzaleek Azken onarpena eman ondoren, ezarritako fidantza itzuliko da.

Berme-epe horretan kontratista izango da erantzulea, egiten diren lan edo zerbitzuetan akats edo ikusiezinezko akatsak agertzen badira.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

25. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK, BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Ez-betetzeak honakoak dira:

1.- Kontratua burutzeko epeak ez betetza:

Kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burtu gabe baditu egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko penalizazioak ezartzea egunean 0,60 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratacio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

2.- Prestazioen burutzapen partziala dela-eta

Kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren ezarritako prestazioen exekuzio partziala betetzen ez badu, Administrazioak bi aukera ere izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko penalizazioak ezartzea egunean 0,60 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratacio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

3- Penalizazioak aplikatzeko procedura

Penalizazioak ezarri baino lehen, kontratistari entzunaldia emango zaio.

Behin penalizazioak zehaztutakoan, Alkateak –edo hark eskuordetutako organoak– onartzearekin bat bete beharrekoak izango dira. Kobratzeko, udalak egin beharreko ordainketetik deskontua eginda kobratuko dira; eta hori posible ez balitz, behin betiko fidantzaren kontra kobratuko da. Azken kasuan 15 eguneko epean osatu beharko da berriz fidantzaren kopurua.

26.- UDALEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK BETETZEA

Enpresa adjudikazio-hartzialeak Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak jarraitu beharko ditu; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei (errotulu, argibide, herritarentzako ohar...) dagokienez. Hala, beraz, elementu horiek ele bietan jarriko dira, eta euskarazkoari lehentasuna emango zaio.

Irizpideen aplikazioa zehazteko eta testuak euskaraz egoki idatziak direla egiaztatzeko, elementu horiek Udaleko Bulego Teknikoa edo Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira.

27. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoia Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 98, 211 eta 306 artikuluetan azaltzen direnak izango dira, aurreko klausulan aurreikusitakoez gain.

Kontratua adjudikazio-hartzaileari atxiki dakoileen arrazoien batengatik eteten bada, ezarritako behin betiko fidantza galduko du.

28. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

IV.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan xedatzen ez den guztirako ondoko arauetan jarraitu beharko zaie:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koan; eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koan, Toki Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuaren Legea onartzen duena; eta lege honek xedatzen duenaren aurka ez doazenean:
 - 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuaren 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
 - Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako xedapenak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorri.

I. ERANSKINA

Kontratuaren xedeari buruzko informazioa

Proposatutako ekipoen helburua da etorkizunean udal zinea izango dena egoki hornitzea. Espazioaren eta kontserbazioaren zailtasunak direla-eta, zerbitzaria integratua duen proiekto bat aukeratu da.

Kabina itxia egin behar ez izateko, proiektoare hori kapsula baten barruan joango da, hura abian aritzeko egokia izango den kutxa baten barruan, hozteko sistema bermatuz eta inguruan egiten duen zarata murriztuz.

Zine-proiektorea koruan aurrez zehaztutako kokapenean instalatuko da. Lehendik instalatuta dagoen ikus-entzunezko proiektorea egokitzen egingo da, zine-proiektoarekin era osagarrian erabili ahal izan dadin.

Zine-pantaila Seminarixoan garatuko diren beste jarduera batzuetarako ere erabiliko da; horrenbestez, horren kokapena jabeekin adostuko da.

Erositako ekipamenduak lehendik udalean dauden ekipamenduekiko osagarriak izatea nahi da, edo bestela, independenteak eta etorkizunean eros daitezkeen beste ekipamenduekiko osagarriak.

Hona hemen ekipamenduen ezaugarriak eta horien banakako prezioak:

Unit.	DESCRIBAPENA	P. UNITATE KO	P. GUZTIRA
-------	--------------	---------------------	---------------

EZAUGARRI OROKORRAK.

Kapitulu honetako partida guztiak sartuta dituzte zuinketa-lanak, beharrezko laguntzak, lan osagarriak, baliabide laguntzaileak eta garbiketa, unitatearen deskribapenean adierazi ez bada ere. Sartuta dago hondakin inerte, toxiko edo arriskutsuen kudeaketa, betiere hondakinak tratatzeko edo eramateko baimendutako kudeatzaileek eginda, eta baita hondakinen kudeaketa egiazatzeko dokumentazioa ere. Ekipamendu guztiak instalatuta, abian jarrita eta egiaztatuta.

PROIEKTOREA ETA ZERBITZARIA

1,00	ZINE-PROIEKTORE DIGITALA 2K 2.2KW. OBJEKTIBOA ETA ZERBITZARIA BARNE.	42.275,00	42.275,00
	Proiektorea 2K.		
	Horren barne proiektorea, lentea eta linterna modular ateragarria 2,2 KWkoa. Honekin ekipatua: 3 x DMD, 0,69"koak, DC2K dark metal devices. Jatorrizko bereizmena: 2048 x 1080 pixel.		
	10 metrorainoko pantailekin bateragarria, araudia DCI 14 flt, 1.2ko irabazia lortzeko.		
	9.000 center lumen.		
	Kontraste-erlazioa >1.850:1.		
	Optika bateragarriak: 1.2-1.7, 1.34-1.9, 1.5-2.15, 1.7-2.55, 2.0-3.9.		
	Zerbitzaria barne:		
	Zinerako multimedia prozesatzailea, integratua (ICMP). Serie 2ko proiektooreantzako aukera.		
	Erabiltzailearen interfazea integratua. Proiektorea urrunetik kontrola daiteke, baita proiekzioak sortzeko eta programatzeko lanak ere.		
	Bereizmen handiagoak ere eusteko diseinatua, fotograma-abiadura handiagoarekin eta bit-maitasun handiagoarekin.		
	Horren barne, berariazko hardware-ren biltegiratzea eta RAID5 kontrolatzalea.		
	Proiekzio berean, bereizmen eta fotograma-abiadura ezberdinaren artean aldaketa adimendua egitea.		
	Proiekzio berean, DCI jatorriaren eta eduki alternatiboen jatorrien arteko konbinaketa adimendua egitea.		
	Eduki alternatiboaren sarrera aberastuak.		
	Benetako biltegiratzea 1,9 TBko (RAID5) 3x disko gogorrak 1 TB eta 2,5"koak, trukagariak berotan.		
	Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.		

1,00	KUTXA ISILGARRIA, ZINE DIGITALEKO PROIEKTORENTZAT Kutxa inguratzaire metaliko aktiboa, areto barruan zine digitaleko proiektore bat sartzeko. Proiektorea egoki aireztatuta mantenduko du, kanpotik klimatizazio-sistemarik instalatu beharrik gabe. Zine digitaleko beste ekipamendu batzuetarako tokia ere eduki dezala (3D pasiboko sistemak, routerrak, bihurgailuak, etab.). Alboetako panelak erraz desmuntatzeko modukoak, proiektoaren mantentze-lanak erraz egin ahal izateko. Isilgailu akustikoak izango ditu, berariaz airearen sarrera eta irteera guztiarako diseinatuak. “Silent-block” sistemarekin, proiektoaren vibrazioak arretoa fisikoki transmititu ez daitezen. Haizegailuak, haizea ateratzeko eta bultzatzeko. Zarata-murrizketa 25 dB. Guztizko zarata abian ari denean, 38 dB. Babes elektrikoa 20 A-koa, eta 220 V-ko elikadura bikoitza, proiekto digitala babesteko. Ainguratz-sistema inklinazio-kontrolarekin. Altzairuz egina, eta pintura elektrostatikoaren akaberarekin (beltza, distiragabea) Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	6.996,45	6.996,45
------	--	----------	----------

Unit.	DESCRIPCIÓN	P. UNITATE KO	P. GUZTIRA
-------	-------------	---------------	------------

1,00	MONITOREA, PC INTEGRATUA UKIPENEZKOA edo PC ERAMANGARRIA Sistema eragilea eta kontrol-programa proiektoarentzat eta zerbitzariarentzat HDD 500 GB, HDMI, Txartel-irakurgailua, USB 3.0, teklatura y xagua. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	672,97	672,97
1,00	SWITCH-a, 8 PORTUKOA 10/100/1000 Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	50,47	50,47
1,00	ROUTERRA, VPN-rekin Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	418,95	418,95
1,00	EGOKIGAILUA, ZINE DIGITALEKO PROIEKTOREAREN AUTOMATISMOENTZAT Automatizazio-sistema zine digitaleko zerbitzariantzat baliagarria izango da. Portu, serie edo Ethernet bidez konektagarria zerbitzariarekin. 8 sarrera optoakoplatuak. 12 rele-irteerak NO/NC, 16 A-raino 250Vac / 16 A 30 Vdc. Irteerak pultsuz edo erretentzioz (latchable) konfiguratzeko modukoak, web-orriaren bidez. Sarrerak eta irteerak seinaleztatuak eta testagarriak pareko paneletik edo web-orritik. 2 irteera 24 Vdc / 1A, sarrerako edo irteerako zirkuituetan erabili ahal izateko. Elikadura: 100 Vac-etik 240 Vac-era / 50-60 Hz. Zine digitalarekin loturarik ez duen beste edozein aplikaziotarako ere baliagarria. Eguneragarria eta kontrolagarria urrunetik internet bidez edo bere web-orritik. Formatua: rack 19". Aretoko argiekiko konexioa, eta zine-emanaldietarako beharrezkoak diren beste automatismo batzuk. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	388,30	388,30

Unit.	DESCRIPCIÓN	P. UNITATE KO	P. GUZTIRA
-------	-------------	---------------------	---------------

1,00	ARETOKO ARGIEKIKO KONEXIOA, ETA ZINE-EMANALDIETARAKO BEHARREZKOAK DIREN BESTE AUTOMATISMO BATZUK Aretoko argiekiko konexioa, eta zine-emanaldietarako beharrezkoak diren beste automatismo batzuk. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	550,00	550,00
------	--	--------	--------

AUDIOA

1,00	ZINE DIGITALERAKO SOINU-PROZESADOREA Zine digitalerako soinu-prozesadorea. Audio-dekodifikadoreak Digitalak Dolby, Dolby AC3, DTS, DTS Master Audio, DTS ES, DTS 5:1, NEO:6. 16 audio-sarrera digital eta 2 konektore DB-25. Formatu Digitala AES/EBU. Laginketa-maiztasuna 44.1 Khz, 48 KHz, 96 KHz eta 192 KHz. 2 sarrera S/PDIF optikoa Tos link bidez. 1 sarrera S/PDIF koaxiala. 4 sarrera HDMI 1.3 (PCM, DTS-HD Master Audio & Dolby AC3) 16 irteera digital AES/EBU, enrutagarriak DB-25 konektore bidez 16 irteera analogiko, DB-25 konektore bidez. 1 irteera, monitorearentzat, RCA konektore bidez. 1 irteera entzumen urriko pertsonentzat. 1 irteera HDMI. Banda-paseko 31 iragazki, doigarriak. 3 iragazki parametrikoiak, doigarriak. Q, 0,7tik 5era Delay-ren doikuntza 0tik 1000 m/s-ra. 1 Konektorea, automaziorako, DB-25 (GPIO) Urruneko kontrola, 2 “DB9 PARA rs-232”ren bidez Urruneko kontrola, “RJ-45 Ethernet 10/100”ren bidez Eguneratua, kontrolatua eta zaindua TMSren bidez, Ethernet bitartez. Formatua rack. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	4.172,27	4.172,27
3,00	ZINE-BOZGORAILUAK, PANTAILA 2 bideko sistema pasiboa. Grabeak 2 x 15” Akutuak 1 x 2”. Potentzia: RMS 850 W Crossover 500 Hz. Maiztasun-maila 45 Hz - 18 KHz. Sentsibilitatea 104 dB. Dispersioa 90º H eta 60º V. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	3.076,53	9.229,59

Unit.	DESCRIPCIÓN	P. UNITATE KO	P. GUZTIRA
1,00	BOZGORAILU AZPIGRABEENTZAT Subwoofer-a, 2 x 18"koak. Maiztasun-maila 50 Hz - 500 Hz. Potentzia RMS 600 W. Potentzia peak programa 2400 W. Gehieneko sentsibilitatea 130 dB. Inpedantzia 8 ohm. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	1.915,53	1.915,53
8,00	ZINE-BOZGORAILUAK, SURROUND INGURUGIROKOAK Instalazio-puntuak: 4 zutabeetan, 2 korupean eta 2 koruan. 2 bideko sistema pasiboa. Grabeak 1 x 12". Akutuak 2 x 1". Potentzia: RMS 200 W Maiztasun-maila 67 Hz - 17 KHz. Dispertsio eliptikoa 115° H eta 50° V-raino. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	606,17	4.849,36
16	ZINE-BOZGORAILUARENTZAKO ERROBERAK	19,81	316,96
4,00	SOINU ESTEREOOKO ETAPA Potentzia 4 ohms-etara 1.000 W. Potentzia 8 ohms-etara 600 W. Babesgailuak DC, VHC, Termikoa, AC eta Limitadorea klip. Damping faktorea (8 Ohm) >5000 (100Hz). Ganantzia / Sentsibilitatea 32dB / x40. Konektoreak Sarrera/Irteera XLR, 1/4", /Speakon. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	1.421,00	5.684,00

PANTAILA

1,00	PROIEKZIO-PANTAILA, PAREKOIA, ELEKTRIKOA, BIRIBILGARRIA FORMATUA 16:9, 6.50 X 4.87, MT, ZULATUA GAIN 1.0 Parean proiektatzeko pantaila, oihal tenkatuarekin Proiekzio-eremua 6.50 X 4.87 Mt. Formatua 16:9. Oihal zuria, mikrozulatua Ganantzia 1.0. Ainguraketa orrazi mugikorrera Ikusangelua 150º. Instalazioa orrazi mugikorreatan Suteen aurkako sailkapena M1 eta B1 Karkasaren neurriak guztira 7200 X 192 X 239 mm. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartza.	5.043,08	5.043,08
------	---	----------	----------

ITURRIA

1,00	BLUERAY-ERREPRODUZIGAILU PROFESIONALA Blu-Ray Pro-Grade diskoak erreproduzitzeko. Kontrolagarria urruneko kontrol-gailuarekin (barne) RS-232C o IP. Blue-Ray, DVD edo CD-audioko edozein formaturi eusteko moduko. Txertatutako pantaila bat du eta nahi ez diren ikusmen-xehetasunak ezkutatzen ditu. Soinu inguratzailaren irteerak, analogikoak, 7.1, diskretuak. USB erretena paretik zamatzeko, irudi- eta audio-artxiboak erreproduzitzeko. Audio-irteerak XLR, balantzatuak eta koaxial digitalak. 1U-ko rack-a duen txasisa, tokia aurrezteko, ateratzeko moduko rack- belarriekin. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartza.	399,00	399,00
------	--	--------	--------

KABLEATUA

1,00	PARTIDA: KABLEATUA, KANALIZATUA, KARGADUNA ETA HALOGENORIK GABEKO SEINALEA. Halogenorik gabeko mangerak. Konexioa, zine-soinuaren etapen eta pantaila atzeko bozgorailuen eta surround bozgorailuen artean. Balantzatutako seinalearen mangerak, soinu digitaleko prozesadoretik soinu- etapetara. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartza. Indarrean dagoen Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoaren araberakoa.	1.174,50	1.174,50
------	---	----------	----------

1,00	PARTIDA: KABLEATUA, KANALIZATUA, INDARREKOIA, ZINE- PROIEKTOREARENTZAT ETA KUTXA ISILGARIARENTEZAT, HALOGENORIK GABE Lineak botata, halogenorik gabekoak, zinearen koadro elektrikotik zine- proiektoareta kutxa isilgarriraino. Kontsumoaren araberako sekzioa. Proiektoarea dagoen tokian kutxa erregleteroarekin. Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartza. Indarrean dagoen Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoaren araberakoa.	266,50	266,50
------	--	--------	--------

Unit.	DESCRIPCIÓN	P. UNITATE KO	P. GUZTIRA
1,00	PARTIDA: KABLEATUA, KANALIZATUA, INDARREKOA, HALOGENORIK GABEA, ZINE-PANTAILARENTZAT Mangera botata, halogenorik gabea, zinearen koadro elektrikotik zine-pantailaraino, halogenorik gabeko mangerarekin. Pantaila-motorean konexioa, bere tokian. Kontrolatzeko aginte-gailua eskumako sorbaldan. Horren barne, instalazioa, konexoak egitea eta abian jartzea. Indarrean dagoen Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoaren araberakoa.	255,00	255,00
1,00	PARTIDA: KABLEATUA, INDARREKOA, KANALIZATUA, HALOGENORIK GABEKOA, ZINEA KONTROLATZEKO KORUTIK Linea botata, halogenorik gabea, zinearen koadro elektrikotik koruko zine-kontroleraino, halogenorik gabeko kablearekin. Oinarrizko konektore shuko “emea”, segurtasun-taparekin, koruko zine-kontroleko tokian. Horren barne, instalazioa, konexoak egitea eta abian jartzea. Indarrean dagoen Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoaren araberakoa.	92,50	92,50
1,00	PARTIDA: KABLEATUA, KANALIZATUA, SEINALEETAKOA, PROIEKTOREAREN ETA ZINE-KONTROLEKO PUNTUAREN ARTEAN, HALOGENORIK GABEA. CAT6-ko linea botata, halogenorik gabea, koruko zine-kontroleko puntuaren eta koruko zine-proiektoaren artean. USB 3.0-ko linea botata, koruko zine-kontroleko puntuaren eta koruko zine-proiektoaren artean. HDMI linea botata, koruko zine-kontroleko puntuaren eta koruko zine-proiektoaren artean. Audio-linea botata, koruko zine-kontroleko puntuaren eta soin—prozesadorearen artean. Horren barne, oinarrizko konektoreak, airezkoak eta kableatu osagarria. Horren barne, instalazioa, konexoak egitea eta abian jartzea. Indarrean dagoen Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoaren araberakoa.	1.225,30	1.225,30

OSAGARRIAK

1,00	RACK ALTZARIA, ZINE-ELEMENTU GUZTIENTZAT Rack 19”, altuera sartu beharreko elementuen arabera zehaztuta; kolpeen kontrako babesia. Horren barne, elementu guztien instalazioa, atzealdeko konexio-panelean konexoak egitea eta abian jartzea.	585,00	585,00
------	--	--------	--------

KOADRO ELEKTRIKOAK

1,00	ZINERAKO KOADRO ELEKTRIKOA Horren barne, Koadro Eszenikotik hargunea egitea eta berau babestea. Burualdearen babes orokorra, diferentzial eta magnetotermikoarekin. Babesgailu partzial bat, soinu-etapentzat, diferentzial eta magnetotermikoarekin. Babesgailu partzial bat, kutxa isilgarriarentzat, diferentzial eta magnetotermikoarekin. Babesgailu partzial bat, zine-proiektoarentzat, diferentzial eta magnetotermikoarekin. Babesgailu partzial bat, zine-pantailarentzat, diferentzial eta magnetotermikoarekin. Bi babesgailu partzial, erabilera askotarikoentzat, diferentzial eta magnetotermikoarekin. Oinarritzko 2 konektore shuko, bikoitzak, 16 A-koak, koadroaren alboan Horren barne, instalazioa, konexioa eta abian jartzea.	1.299,26	1.299,26
------	---	----------	----------

AZPIGUZTIZKO A	87.859,99
BEZ 21%	18.450,60
GUZTIRA	106.310,59

II. ERANSKINA

Proposamen-eredua

Aurkezlearen datuak:

Izen-abizenak _____
Helbidea _____ Udalerria _____
Telefono zk.a _____ (Fax-a, baldin badauka: _____)
NAN zk.a _____ ; zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.

Ordezkatuaren datuak (goikoa ordezkaria izanez gero):

Izena _____
Helbidea _____ Udalerria _____
NAN edo IFZ zenbakia _____

AZALTZEN DUT

I.- Ezagutzen ditudala "ZINEA EMATEKO MATERIALAREN HORNIKETA ETA INSTALAZIOA SEMINARIO ARETOAN EGITEKO ETA MARTXAN JARTZEKO" Baldintza Ekonomiko Administratiboen eta Teknikoen pleguak eta baita expedienteean dauden gainontzeko agiriak ere, eta neure gain hartu eta men egiten diedala oso-osorik.

II.- Nire ardurapean aitortzen dut, batetik, enpresa lizitatzale honek gaitasun juridikoa duela eta nahikoa baliabide dituela kontratuaren xedea betetzeko, eta, bestetik, indarrean dagoen legerian aipatzen diren bateraezintasun edo debeku kasuetako batean ere ez dagoela sartuta.

III.- Lan eta zerga alorretan eta Gizarte Segurantzakoan legeek edo araudiek xedatzen dutena beteko dudala.

IV.- Adjudikazio-hartzale suertatuz gero, onartutako pleguen betebehar eta baldintza guztiei jarraituz burutuko ditudala lanok, baita expedienteean zehaztutako gainontzeko baldintza fakultatiboei jarraituz ere.

V.- Esandakoaren arabera konpromisoa hartzen dudala lan horiek egiteko ondorengo prezioetan: urteko..... eurotan gehi... BEZari dagozkionak. Hau da,..... eurotan (BEZ barne).

BIGARRENA: Konpromisoa hartzen dut honako berme-epea ezartzeko: urte.

(data eta eskaintzailearen sinadura)

**PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS PARA LA
REGULACIÓN DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA:**

**CONTRATACIÓN DE SUMINISTRO E INSTALACIÓN DE MATERIAL PARA
PROYECCIÓN DE SISTEMA DIGITAL DE CINE**

I- CONTENIDO DEL CONTRATO

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Constituye objeto del contrato la ejecución del suministro e instalación de material y su puesta en funcionamiento para proyección de sistema digital de cine en la sala Seminarixoa, de conformidad con las condiciones y especificaciones recogidas en el presente pliego.

El equipamiento técnico-escénico se relaciona en el Anexo I.

CPV: 38652000-0

2.- DURACIÓN DEL CONTRATO

La duración del contrato se extenderá desde el momento de la firma del contrato hasta la devolución de la fianza definitiva.

El plazo para la ejecución del suministro e instalación de material para proyección de cine en el salón Seminarixoa y su puesta en funcionamiento será de 60 días naturales a partir de la firma del contrato.

3.- PRECIO DEL CONTRATO.

El precio del contrato será de 87.859,99 euros (más 21 % de IVA).

El precio máximo de licitación y los precios unitarios ofertados comprenden todos los gastos precisos para la ejecución del contrato, y, entre otros, los siguientes:

- La contratación del suministro e instalación de material para proyectar sistema digital de cine que es objeto de la licitación, con el suministro, instalación, puesta en funcionamiento y comprobación de todos sus componentes.
- Los gastos de transporte hasta las instalaciones de Seminarixoa, y todos los medios auxiliares y herramientas necesarias para la instalación del equipamiento técnico escénico objeto de esta licitación.
